Harrobia Lantzen eta Entzun!ek aurkezten dute:












# gureandoinu

euskal herriko musika argitalpenak 2015



# editoriala

## Baten bat da faltako

Hamabi hilabeteko bilaketa luzatu egiten da, halabeharrez. Eguneroko erritmoari eustea ez da nahikoa Euskal Herriko musikagintzaren urtebeteko uzta behar bezala jasotzeko. Zorionez, lan asko argitaratzen dira urtero gure herri txikian. Zoritxarrez, lan asko dira urtero jendartearen begi eta belarrietara iristen ez direnak. Argitalpen guztiei ikusgarritasuna emateko asmoarekin sortu genuen *Gureandoinu* egitasmoa. Tematuak segitzen dugu gure sormena dokumentatzen. Beharrezkoa delako, eta batez ere, nahi dugulako.

320 argitalpen fisiko zein digital pasa zenbatu ditugu 2015ean. Baten bat da faltako. Barka, horrela bada. Zerrenda oparotik ia 200 dira autoekoitziak, eta 100 baino gutxiago diskoetxe profesionalek finantzatu eta babestuak. Horrela, azken urteetako joerak norabide berean mantendu dira. Negozio ereduaren krisiak talka zuzena egiten du sormen kopuruarekin. Batak beherera egin duen bitartean, besteak gora. Batak egokitzeko zailtasunak dituenean, sortzaileek bestelako bideak ausart jorratu dituzte.

Saretik eskura, eta eskutik sarera. Argitaratu diren lanen gehiengoa entzun daitezke Interneten. Fisikoki, ordea, ezin dira denak eskuratu. Euskarri moten aniztasunaren parekoa da iazko musikagintza. Estilo mugarik ez da. Hori bai, euskaraz gehiago entzuteko aukera izango du pasa den urteko uztari gogotsu heltzen badio.

Ez dira denak izango, baten bat da faltako. Baino direnak badira. Eta ez, ez dira gutxi.

**Inaxio Esnaola Aranzadi**

gureandoinu
euskal herriko musika argitalpenak

**Harrobia Lantzen** eta **Entzun!**
aldizkariaren arteko elkarlana da

**Koordinazio orokorra:**
Inaxio Esnaola eta eragin.com

**Testuak eta testuen koordinazioa:**
Inaxio Esnaola (Harrobia Lantzen) eta Xabier Sagardia

**Diseinua eta maketazioa:**
eragin.com

**Argitaratzen du:**
eragin.com

ENTZUN!

**Entzun!**
Antsoain kalea 1, behea
31014 Iruñea
Nafarroa

Donostia ibilbidea, 11 behea
30115 Astigarraga

entzun@entzun.com

www.entzun.com

harrobialantzen

**Harrobia Lantzen**
**EHko musika eszena babesteko ekimena**

harrobialantzen@gmail.com
www.harrobialantzen.blogspot.com

# Eskuratu Entzun! liburu berria…

## …eta eraman doan 18 kantuko CD–bilduma!




**15€**

## Entzun! bilduma 2015

**LA BASU** *Trakamatraka* • **2ZIO** *Hotza* • **ANESTESIA** *Hildakoen bisita* • **ETEN** *MakinATXo bat gorpuzki* • **ENKORE** *Bihotz ezkutua* • **LARREGI** *Zuloan* • **MCONAK** *Hitz gordinak* • **PIZTIAK** *Bixitxi Marabilli Re* • **ZURA** *Paris* • **JP LOHIAN & KLONEN KLANA** *Hiruki beltza* • **HAN** *Poesia* • **ELORTEGI ANAYAK** *Agirretarren nagusia* • **LARRY BIRD** *Inoiz* • **JUPITER JON** *Gangsterrak operara doaz* • **ESTANKONA** *Ostargia* • **IZAKI GARDENAK** *Hibernazioa* • **ANARI** *Nola galdu* **MIKEL URAKEN** *Grina oskolduna*

Harpidetu eta gainkosterik gabe etxean jaso.
Idatziguzu **entzun@entzun.com**–era

**1996tik Euskal Herriko musikarekin** **entzun.com / @entzuner**

# 2015ean argitaratutako euskal herriko musika

## Aztarna

· **JOXAN GOIKOETXEA** *Zeru Horren Infernuak* [Urtarrila]
· **PIER PAUL BERZAITZ** *Egunsentiaren Kantak* [Abendua]

## Baga Biga

· **GOVERNORS** *Su Garaian* [Apirila]
· **LAIN** *Tximeletak* [Apirila]
· **LARREGI** *Pantomima* [Urria]
· **THE USKI'S** *The Uski's* [Urria]
· **ENKORE** *E* [Azaroa]
· **EN TOL SARMIENTO** *Beldurrik Ez* [Azaroa]
· **TXAPELPUNK** *Punkaren Semeak* [Azaroa]
· **KORRONTZI** *Korrontzi Dantzan* [Azaroa] :: CD/DVD

## BideHuts

· **ANARI** *Zure Aurrekari Penalak* [Maiatza]
· **NIRE** *Hamabost* [Urria]
· **JUPITER JON** *Eta Metaforak Greba Egin Zeben…* [Urria]

## Bonberenea Ekintzak

· **ANESTESIA** *Zirkulutik Espiralera* [Otsaila]
· **ANAI ARREBAK** *Anai Arrebak* [Martxoa]
· **SAME OLD** *Cabeza Voladora* [Apirila]
· **GLAUKOMA TA BAD SOUND** *Sua Zaintzen* [Urria] :: LP/CD
· **HAN** *Han* [Urria] :: LP/CD
· **BI BALA** *Gure Heroiak* [Urria]
· **ZE ESATEK!** *Inoiz Egin Dugun Diskorik Onena* [Urria]

## DDT Banaketak

· **HARTZAK BLUES BAND** *Arima Saldu* [Urtarrila] :: EP
· **KILLERKUME** *Trautzer Blaster* [Otsaila] :: LP
· **JARRERA** *Jarrera* [Abuztua]
· **MEREN** *Ekintza Zuzena* [Abuztua]
· **UFESTUEK** *Zilo Beltza* [Abuztua]
· **M.C.D.** *Funeral En Vivo 1979-2004* [Urria] :: 2LP

## El Dromedario Records

· **DIKERS** *Vértigo* [Azaroa]
· **CICLONAUTAS** *Bienvenidos Los Muertos* [Azaroa]

## Elkar / Oihuka

· **AGUXTIN ALKHAT** *Haizeen Meneko* [Martxoa]
· **JOSERRA SENPERENA** *9 Ganbera Pieza* [Martxoa]
· **SKASTI** *Maskarak* [Apirila]
· **ELUSTONDO** *Elustondo* [Maiatza]
· **BIDE ERTZEAN ETA METROKOADROKA** *Nola beltzu behar zuria* [Iraila] :: DVD
· **ZURA** *Egunkari Ezkutua* [Urria]
· **IMUNTZO ETA BELOKI** *Egurre* [Urria]
· **JEAN MIXEL BEDAXAGAR** *Belatxa* [Urria]
· **IGELAREN BANDA** *Debalde Festa* [Urria]
· **EH SUKARRA** *Azken Gezia* [Urria]
· **IZAKI GARDENAK** *Aurri Gara* [Azaroa]
· **OLATZ ZUGASTI** *Ur Goiena Ur Barrena* [Azaroa]
· **KEN ZAZPI** *Phoenicoperus* [Azaroa]
· **MIKEL URDANGARIN** *MMXV* [Azaroa]

# urteari errepasoa

*Alperrik da apaintzea* kantuaren doinupean hasi naiz teklatuaren teklak zanpatzen. **JP Lohian & Klonen Klana** proiektuaren estreinako diskoaren lehen kantua da, diskoa bezala kosmikoa, atmosferikoa eta iluntasunean ederra. Urteko disko kuttunen artean sailkatu dugu Joseba Poncerena. Ez da, baina, 2015ean gure arreta eta bihotza harrapatu duen lan bakarra.

Ondorengo lerroetan, urteari errepasoa ematen saiatuko naiz, azpimarragarriak iruditu zaizkidan diskoek markatutako ildoari jarraiki (jakina, hainbat arrazoi direla medio, ezinezkoa izan zait guztiak entzutea). Nolanahi ere, iaz *Gureandoinu* argitalpenean hasitako bideari heldu diogu aurten ere. Hau da, ez dugu urteko disko kuttunen zerrenda soil eta aseptikoa egin nahi izan.

Goazen bada, 2015. urteak eman ziguna gogoratzera. Doinu gogorrekin ekin genion urteari: **Anestesia**ren *Zirkulutik* espiralera disko gordina izan zen lan goiztiarrenetako bat. Eta gogor hasi garenez, gogor segituko dugu. **Hartzak Blues Band**, **Antihumano**,

Jarraitzen du ▶

## Gaztelupeko Hotsak / Errabal Jazz

· **TRAVELLIN' BROTHERS** *Magnolia Route* [Martxoa] :: CD/LP
· **LOS GALERNA / THE CAVERNARIOS** *Sangre En El Atlantico* [Apirila]
· **MIGUEL SALVADOR TRIO** *Código* [Maiatza]
· **MIKEL ANDUEZA** *5 Segundoro / Cada 5 Segundos* [Urria]
· **FMA TRIO** *#1* [Urria]

## Gor

· **LOS CARNICEROS DEL NORTE** *Coulrofobia* [Apirila]
· **GOR 25 Urte** *25 Abesti* [Azaroa]

## Guns Of Brixton

· **SONIC TRASH** *Latigo* [Martxoa]
· **POMERAY** *XXIII* [Maiatza]

## La Humanidad Es La Plaga

· **URA** *Ura* **[Urtarrila] :: LP**
· **ANCIENT EMBLEM / HONGO** *Split* [Uztaila] :: Split LP
· **1991/SIERRA NEVADA** *Split* [Azaroa] :: Split LP

## Mauka

· **SERMOND'S** *Libelula* [Maiatza]
· **FIACHRAS** *Amnesia eta Argia* [Maiatza]
· **VOLTAIA** *Medusa* [Azaroa]
· **ERATU** *Bidea* [Azaroa]
· **IHESKIDE** *Garaitu Ez Gaituztelako* [Azaroa]
· **MCONAK** *Galarrena* [Abendua]
· **THE FRIDAY'S CREW** *Hemen Gara* [Abendua]
· **ARKADA SOCIAL** *Sin Mirar Atras* [Abendua]
· **MAUKA** *Vol. 1* [Abendua]

## Moï Moï Records

· **POLYGORN** *Polygorn* [Urtarrila]
· **LUMI** *Lumi* [Abendua] :: EP

## Psilocybina Records

· **LUZ DE PUTAS** *Dantzaren Iraultza* [Apirila]
· **MARMOKA** *Marmoka* [Uztaila] :: EP

## Taupaka

· **SUAIA ETA LAHAINE** *Herrima* [Urtarrila]
· **LA BASU** *Aire Es Vida* [Apirila]
· **NORTE APACHE** *Juanito Laguna* [Maiatza]
· **ATZEKABE** *Amets Baten Istorioa* [Uztaila] :: EP
· **JOSU BERGARA** *Kantu Txikien Indarra* [Azaroa]
· **HUTSA** *Amnesia* [Azaroa]

## Gainontzeko EH zigiluak (erreferentzia bakarrekoak)

· **AINARA ORTEGA** *Scat (Vaiven)* [Apirila]
· **ALOS QUARTET** *Garden (NO-CD Rekords)* [Urria]
· **EL CAPITAN ELEFANTE** *Agoraphobia (Gaua Records)* [Urria] :: EP
· **ESNE BELTZA** *Esna (5Gora)* [Abendua]
· **FERMIN MUGURUZA Nola?** *Irun Meets New Orleans (Talka Records)* [Abendua]
· **LEIZE** *Cuando Te Muerden (Produlam Records)* [Urria]
· **LIE DETECTORS** *Chelsea Boots / Viajar (Bloody Mary)* [Otsaila] :: EP
· **MADDI OIHENART** *Doi (Reseda Diskak)* [Azaroa]
· **MAKALA JAZZ FUNK BAND** *Xake! (Orrua Diskak)* [Martxoa]
· **MANDRAGORA NEGRA** *Imparable (Heaven Musik)* [Iraila]
· **VIRENQUE** *Journey (El Gringo Music)* [Urria] :: LP

**Managaitz**, **Tutan Come On** eta **Estricalla**ren diskoek gure belarriak jipoitu dituzte. Bai, zaku oso zabal batean sartu ditugu askotan elkarren artean zerikusi gutxi duten talde hauek. Metalaren eremu anitzean ere uzta oparoa izan da. Nabarmentzekoak dira **Gabezia**, **Evil Killer**, **Helde** eta **Rise To Fall** taldeen lanak.

Musika zerrenda trendy-etan inoiz agertuko ez diren taldeak agertu zaizkigu dagoeneko. Baina ez izutu. Askoz ere gehiago baititugu. Jarraian, arriskuak hartu (eta irabazten duten) talde eta disko batzuk: **Killerkume** (*Trautzer Blaster*), **Akauzazte** (*Etzazuaka*), **Eten** (*Atx!*) eta **Billy Bao** (*Lagos Sessions*).

Bidehutsek hiru disko argitaratu ditu 2015ean, eta hirutan asmatu. Disko erakargarriak, bakoitza bere esparruan, **Anari**, **Nire** eta **Jupiter Jonenak**. Biba zuek!

Bonbereneako jendeari ere bibak: besteak beste, **HAN** taldearen izen bereko estreinakoarekin gozatua hartu dugu. **Same Old** gasteiztarren *Cabeza Voladora* disko

**Jarraitzen du** ▶

## Auto-ekoizpenak

- **2ZIO** *Bideak* [Iraila]
- **4 ANAI** *Guda Doinuak* [Uztaila]
- **A.D** *Si Vis Pacem...* [Iraila]
- **A.D / KNIVES** *Nova Aetica Luporum* [Otsaila] :: Split CD
- **AFU** *Zoroak Hegaz Doaz* [Urria]
- **AGAINST YOU** *En Las Calles de tu Ciudad* [Uztaila]
- **AKAUZAZTE** *Etzazuaka* [Ekaina]
- **AKORT** *Akort* [Otsaila]
- **ALBERT CAVALIER** *Albert Cavalier* [Abuztua] :: EP
- **ALERTA** *Seguimos Creyendo* [Otsaila]
- **ALERTA GORRIA** *Piztia Basoan* [Maiatza]
- **ALEX & CO.** *From The Inside* [Abendua]
- **ANKENAI** *Zenbat Amore Desberdin* [Iraila]
- **ANTIHUMANO** *Antihumano* [Azaroa]
- **APURTU** *Orain Aske Zara* [Ekaina]
- **APURTU** *Katuen Hirian* [Urria]
- **ASTALAPO** *Non Fire* [Martxoa]
- **ASTIGARRAGA THROWER** *Aiako Harria* [Urria]
- **ATLANTIDA** *Energia Infinita* [Azaroa]
- **B.C. BOMBS** *Bombs City Rockers* [Martxoa]
- **BACKBONE** *Landscapes* [Martxoa] :: EP
- **BASTARDOS DEL REY** *La Tonta La Kaja* [Urria]
- **BEGIZ BEGI** *Joan Ihes Egin Baino Lehen* [Ekaina]
- **BELAKO** *Hamen* [Azaroa]
- **BELGRAVIA** *14:24* [Otsaila] :: EP
- **BILBOMATIKS** *Bilmomatiks* [Abendua]
- **BLACK GAMBA** *Aquarium* [Maiatza]
- **BLACK OCEAN WITNESS** *Heresy* [Azaroa]
- **BLAKA Berriz** *Jaioko Gara* [Martxoa]
- **BLAST WAVE** *Resistire* [Martxoa] :: EP
- **BOOT BOYS** *Desobedientziaz Bizi* [Urria]
- **BOURBON KINGS** *40º* [Maiatza]
- **BRUTAL CALLING** *Blood Brothers Till The End* [Martxoa]
- **BUFFALO** *Zinematik* [Maiatza]
- **BULLETS OF MISERY** *Summum Post Mortem* [Urtarrila] :: EP
- **CÄCTUS** *Cäctus* [Ekaina] :: EP
- **CERO A LA IZQUIERDA** *No Ha Dejado de Llover* [Otsaila]
- **COLAPSO** *Gizakiaren Bukaera* [Urria] :: EP
- **COLINA** *Dias de Furia* [Martxoa]
- **CORDURA** *El Mal Ya Está Hecho* [Urria]
- **DARK CODE** *Delineate* [Otsaila]
- **DARK HELLION** *Golpe a Golpe* [Iraila]
- **DIENTES DE LUNA** *Más Vale Tarde* [Maiatza]
- **DINGOS & FLAMINGOS** *Bilbao Sin City* [Iraila]
- **DONGE** *Odolez Beteriko Iluntasunean* [Urria] :: EP
- **DROP!** *Delusion* [Urria] :: EP
- **EDUCADOS** *Edukaos* [Maiatza]
- **EGURRA TA KITTO** *Egurra Ta Kitto* [Ekaina] :: EP
- **EL OCTAVO ARBOL** *Ella Soy Yo* [Otsaila]
- **ELORTEGI ANAYAK** *Sotoan* [Ekaina] :: EP
- **ESTANKONA** *Ardatza* [Azaroa]
- **ESTIGIA** *Regression* [Urria] :: EP
- **ESTRICALLA** *Hutsartea* [Martxoa] :: EP
- **ETEN** *Atx!* [Ekaina]
- **ETORKIZUN BELTZA** *Esnatu Gara?* [Maiatza]
- **EXNOVIOS** *Exnovios* [Apirila] :: EP
- **EXTINCTION** *The Dark Matter* [Uztaila]
- **FERGUSONS** *Fergusons* [Abuztua]
- **FEROSZ** *Lost Faith* [Iraila]
- **FOURSCORE** *Una Por Otra* [Apirila] :: EP
- **GIRANICE** *Ur* [Maiatza] :: EP
- **GABEZIA** *Orain* [Azaroa] :: EP
- **GAROA** *Hariak Hautsiz* [Azaroa]
- **GATOM** *Esnea Hil, Gazta Tiro Pum!* [Abuztua]
- **GELA BEREZIA** *Gela Berezia* [Azaroa]
- **GORA GORA KIDS** *Jaiki & Shake* [Martxoa] :: EP

interesgarria izan da. **Glaukoma eta Bad Sound**-en *Sua zaintzen* split-EPa ere opari polita izan da reggaezaleentzako.

Hip-Hoparen alorrean **La Basu**ren *Aire es vida* azpimarratuko dugu. Diskoko euskarazko kantuak, *Trakamatraka*, belarri askotara heltzea lortu du. **2Zio** taldearen *Bideak* izenburuko lana ere euskal raparen baitako disko esanguratsuenetakoa izan da.

Ez gara Iparraldetik aterako, izan ere, bertako **Lumi** izeneko proiektua ezagutzeko parada (eta plazera) izan baitugu. Maiteminduta gaude oraindik *Haritza* kantuarekin, taldearen izen bereko EPan aurkituko duzuena (Moï-Moï).

Elkar diskoetxeak, berriz, uzta oparoa eta polita izan du 2015ean. **Aguxtin Alkhat**-en *Haizeen meneko*, **Zura**ren *Egunkari ezkutua* eta **Izaki Gardena**k-en *Aurri gara* diskoek hiruki perfektua osatu dute. Baina gehiago egon da, **Joserra Senperena**, **Olatz Zugasti**, **Ken Zazpi**, **Mikel Urdangarin**... Folkaren alorrean berriz, Baga-Biga zigilupean argia ikusi duen

Jarraitzen du ▶

· **GRINGO** *Powerless* [Maiatza]
· **HAXOTZ** *Letaginak* [Abendua] :: EP
· **HI EXEKUTIBO** *Kondria Guztiak* [Urtarrila] :: EP
· **HIGHLIGHTS** *Storming The Gates* [Urtarrila] :: EP
· **HIRA** *V* [Maiatza]
· **HOLLY BRANDY** *So Unfair* [Abendua]
· **HOTZIKARA** *II* [Apirila]
· **HYRAX Ruins** *Over Ruins* [Urria]
· **IAM RAROS** *Fuego y Granada* [Martxoa]
· **IAN MASON** *Liar Balads* [Urria] :: EP
· **IKER LAUROBA** *Zeru Tolesgarria* [Abuztua]
· **INDOMABLES** *Hora de Despertar* [Apirila]
· **ISEKA** *Bizi ala Hil* [Azaroa]
· **ISEO & DODOSOUND** *Cat Platoon* [Apirila]
· **ISUSKO** *Diablo* [Urria]
· **ISSUNA** *Zapuztutako Guztia Suspertzen Duen Lehen Urratsa* [Uztaila]
· **ITS OVER NINE THOUSAND IONT** [Iraila]
· **IZATE FALTSUA** *Zaratak Agindu Dezan* [Apirila]
· **JAMES ROOM** *Weird Antiqua* [Apirila]
· **JEFE CHIRPA** *Animal Soul* [Apirila] :: EP
· **JOSU JON IMAS** *Menos Punk, Mas Rantxeras* [Maiatza]
· **JP LOHIAN & KLONEN KLANA** *JP Lohian & Klonen Klana* [Azaroa] :: LP
· **JUAN VALLS** *Life holds red lights on behind* [Azaroa]
· **KABBALAH** *Primitive Stone* [Urtarrila] :: EP
· **KALAKAN** *Elementuak* [Apirila]
· **KALUSE** *Kaluse* [Abendua]
· **KARTZAROT** *Arima Ez Da Galtzen* [Apirila]
· **KASERNARAT** *Okerreko Bidetik* [Urria]
· **KASIK** *Kasik* [Ekaina] :: EP
· **KAUCE** *Sin Salida* [Maiatza]
· **KILLERS** *Le Baiser de la Mort* [Otsaila]
· **KINADA** *Kinada* [Maiatza]
· **KLAK!SON** *Denboraleak* [Abendua]
· **KNIVES** *The Blackest Noose* [Abuztua]
· **KOMETA** *Grabitatea* [Azaroa]
· **KONBENIO DEL METAL** *Arbeit Macht Frei* [Urria]
· **KUDAI** *VII* [Azaroa]
· **KUMA NO MOTOR** *Panoptikoan* [Ekaina]
· **LA SOMBRA DEL FLACO** *La Sombra del Flaco* [Azaroa]
· **LATITUD 43º** *Latitud 43º* [Otsaila]
· **LENAO** *Lenao* [Iraila]
· **LIHER** *Arrazoi gutxi, denbora asko* [Maiatza]
· **LOMOKEN HOBOKEN** *Alicate* [Apirila]
· **LOS BRACCO** *Bendita Esquizofrenia* [Apirila] :: EP
· **LOS GRAVES** *Supernova* [Ekaina]
· **LOU TOPET** *Abesti Bat Gutxiago* [Urria] :: CD/Liburua
· **LUPULO** *Aki Se Viene A Sufrir* [Azaroa]
· **MADSKINS** *Louder Than The Gods* [Iraila] :: EP
· **MALOS TIEMPOS BASTARDOS** *Amona Saralegui* [Urria]
· **MÄNÄGÄITZ** *Managaitz* [Apirila]
· **MANUGAITZ** *Txapela Barruan Darabilt Mundua* [Azaroa]
· **MELMAK** *Pig Songs* [Urtarrila] :: EP
· **MG BAND** *MG Banda* [Urtarrila]
· **MI HERMANA CORINA** *Stay Free* [Urtarrila]
· **MIKEL GARIKOITZ** *Lauve* [Urria]
· **MIKEL URAKEN** *Neguaren Ostean* [Urria]
· **MONOS** *Encore* [Abuztua]
· **MONTE DEL OSO** *Esto Tiene Que Doler* [Apirila]
· **MOONLIGHT** *Bitakora* [Urtarrila]
· **MOONSHINE WAGON** *Folk You!* [Maiatza]
· **MOR MORE** *Bidarriak* [Abendua]
· **MOSSIN NAGANT** *Mossin Nagant* [Otsaila]
· **MUNLET** *EP5* [Maiatza] :: EP
· **MUSKULO** *Triku Bat Errepidean* [Abendua]
· **NABIL** *Ordu Kiskaliak* [Azaroa]
· **NASTI DE PLASTI** *Mi Último Reducto* [Urria]
· **NEKROTECH** *Deus Ex Machina* [Uztaila]

**Korrontzi** taldearen *Korrontzi dantzan* CD/DVDa oso lan fina iruditu zaigu.

Baina buelta gaitezen doinu jamaikarretara. Urteko disko onenen zerrendetan aurkituko ez duzuen lan bati buruz mintzatuko gara. Klaro, nola liteke ska estiloko talde bat urteko disko onenen artean egotea? Bada bai, **Akatz** bilbotarren *Vuelta y vuelta* gurean egin den disko onenetako bat izan da eta ozenki aldarrikatzen dugu.

Atlantiko beltza gogoz elikatzen segitu duen **Sustraians Records**-eko jendearen lana azpimarratu nahiko genuke ere. Ez dituzue alboko zerrendan aurkituko 2015ean argitaratu dituzten single eta Ep digitalak, baina zoazte haien Soundcloud orrira horiez gozatzera. Eta adi, kantu horietako batzuk formatu fisikoan argitaratuko dituzte aurki...

Azpimarragarriak iruditu zaizkigu baita ere **Iseo & Dodosound**-en *Cat Platoon*, **Makala Jazz Funk Band**-en *Shake*, **Fermin Muguruza**ren New Orleans

**Jarraitzen du** ▶

· **NERVIOSAH** *Deshumanización* [Urria]
· **NEURA** *Neura* [Abendua] :: EP
· **NIK KHAOS** *Eztanda* [Abendua]
· **NIÑA COYOTE eta CHICO TORNADO** *Lainoland* [Otsaila] :: EP
· **NOIZEAN BEHIN** *Oinutsik* [Maiatza] :: EP
· **OBSESION FATAL** *Disparando Rock & Roll* [Azaroa]
· **ORIHEN** *Incontrolable* [Otsaila] :: EP
· **ORREAGA 778** *Aske Izan Arte* [Iraila]
· **OSKAR BENAS Y LOS HEREJES INSTRO COMBO** *Obylhic* [Urria]
· **OSSYRIS** *Renacer* [Iraila]
· **OUTER HEAVEN** *Weather The Storm* [Abendua]
· **OVERLOUD** *Altered Ego* [Urtarrila]
· **OZHEN** *Ozhen* [Martxoa] :: EP
· **PAM** *Hurrengoan Bai* [Iraila]
· **PECOZZA UNITED** *Homonimoa* [Maiatza]
· **PELAX** *Cowboy's Orchestra Saioak* [Martxoa]
· **PETRA** *Zuzenean* [Maiatza]
· **PINOTXET** *Fables* [Martxoa] :: EP
· **PIZTIAK** *U* [Martxoa]
· **PEACHY JOKE** *No Heroes* [Iraila]
· **PERPETUAL LIMBO** *Puerta Al Olvido* [Abuztua]
· **PORNOX** *Plast!* [Azaroa]
· **PRESSURE M8'S** *Meraki* [Urria]
· **PRISCILLA BAND** *Xalala Kale* [Urtarrila]
· **PROPHETIC SCOURGE** *Corrupt Karmic Invigilators* [Otsaila] :: EP
· **PUPA** *Desengranajes* [Iraila] :: EP
· **QUAOAR** *Dreamers. Dreaming* [Urtarrila]
· **RUBIO** *Rubio* [Abuztua]
· **SANTIAGO DELGADO Y LOS RUNAWAY LOVERS** *Gabba Gabba Twist* [Martxoa] :: EP
· **SANTIAGO DELGADO Y LOS RUNAWAY LOVERS** *Quiero Ser Santa* [Urria]
· **SASKARRAK** *Segi Dezagun* [Maiatza]
· **SEIURTE** *Ezpalak* [Apirila]
· **SEÑORES** *Verbena En La Plaza Del Pueblo* [Otsaila] :: EP
· **SMOKING BARRELS** *And We Found Our Place...* [Uztaila]
· **SOFA** *I* [Martxoa] :: EP
· **SÖNAMBULA** *Hilen Argia* [Uztaila] :: EP
· **SORKUN** *Ziklomorphosia* [Azaroa]
· **SORKUN & DJ PATA** *Turn On The Radio* [Urtarrila]
· **SUEDER** *Bazan Ordue* [Azaroa]
· **TAUPADA** *Zeren Zain* [Iraila]
· **TENPORA** *Mundu Berria* [Martxoa]
· **THE BEATPUNKERS** *Lonesome Heartbreaker* [Maiatza] :: EP
· **THE EXTENDED PLAYS** *Twilight* [Abendua] :: Single
· **THE GREAT BARRIER** *Winter Greets You* [Urtarrila]
· **THE INDUCTIONS** *Drops On Fire* [Apirila]
· **THE LASAI** *Egunsenti Iluna* [Maiatza]
· **THE NORTHAGIRRES** *Down The Highway* [Uztaila]
· **THE VARTOOLS** *Electrified* [Abuztua]
· **THE WIZARDS** *The Wizards* [Otsaila]
· **THE YOUNG WAIT** *The Young Wait* [Urria]
· **TIK TARA** *Hariak* [Apirila]
· **TOMMY GUN** *1990* [Uztaila]
· **TOOTH** *Bi* [Azaroa]
· **TUTAN COME ON** *Emaidazu Mainstream* [Azaroa]
· **UK BILL** *Ez Nago Lo* [Abendua]
· **VANISHINE** *Tears From The Sun* [Azaroa]
· **XANORMAL** *Musical Selfies* [Abuztua]
· **XORIÑOAK KALOIAN** *Xoriñoak Kaloian* [Apirila]
· **XUORUM** *Involución* [Urria]
· **XUTIK** *Hameka Begirada* [Abuztua]
· **ZAZKEL** *Beta* [Urtarrila] :: EP

doinupeko *Nola?* eta **McOnak**-en *Galarrena*.

Rock and rollaren eremuan (ez nahastu rock zurrunarekin) goia jo duen talderik izan bada, hori **Lie Detectors** izan da. Urteko bi EP onenak eta freskoenak atera ditu talde gipuzkoarrak. **Los Graves** iruindarren *Supernova* disko luzea ere txapela kentzeko modukoa iruditu zaigu eta **The Dealers**-en *Serendipic Breakfast* estreinako disko luzeak maila oso ona erakutsi du. Esparru honetan, **Sonic Trash** fin ibili da bere *Latigo* diskoarekin eta **Los Galerna** arrasatearren eta **The Cavernarios** mexikarren 10 hazbetekoak gure jogailuan buelta dezente eman ditu. Azkenik, power pop ukituko **Elortegi Anaiak**-en *Sotoan* Ep-a biziki estimatu dugu. Ah! Eta **Señor No**-ren EPa!

Euskal Herriko talde erdaldunen artean, Iruñeko beste bost talde ekarriko ditugu lerrootara (hiriak bizi

## EHtik kanpoko diskoetxeak

· **ABERRI TXARRAK** *Ertzainis Democracy (Maldito Records)* [Otsaila]
· **AKATZ** *Vuelta y Vuelta (Liquidator Music)* [Ekaina]
· **AMA** *Nada Dos Veces (Jabalina)* [Urtarrila]
· **ARENNA** *Given To Emptiness (Nasoni)* [Maiatza]
· **BELIZE** *Belize (Warner)* [Iraila]
· **BEÑAT ACHIARY, PHILIPPE DE EZCURRA, RAMÓN LÓPEZ** *Acércate más (Buda Musique)* [Azaroa]
· **BILLY BAO** *Lagos Sessions (Munster Records)* [Abendua]
· **BILLY BAO** *Communisation (Fuck Yoga Records)* [Abendua]
· **BONI** *Incandescente (Warner)* [Apirila]
· **BRAND NEW SINCLAIRS** *Sinclairs & Others Chronicles (Clifford)* [Apirila]
· **CAID DECEIT** *Babilonia La Grande (Sounds Of Metal)* [Abuztua]
· **CAN OF WORMS** *Kult Of Nuke (Great Dane Records)* [Apirila]
· **CARNIVOROUS VORACITY** *The Impious Doctrine (Amputated Vein Records)* [Iraila]
· **CHILDRAIN** *Matheria (Maldito Records)* [Azaroa]
· **CORREOS** *Seres (Warner)* [Apirila]
· **ELFFOR** *Buruzagi Ilunaren Bilduma (Fallen Angels Productions)* [Martxoa]
· **EVIL KILLER** *Lethal Assault (Eventhink Metal Records)* [Martxoa]
· **FRENETIK** *Guillotina (Maldito Records)* [Urtarrila]
· **HELDE** *Suaren Gerizpea (Negra Nit)* [Ekaina]
· **IN THOUSAND LAKES** *The Memories That Burn (Phatologically Explicit Recordings)* [Abendua]
· **JABIER MUGURUZA** *Tonetti Anaiak (Resistencia)* [Azaroa]
· **KALEAN** *Mariposas Afiladas (Maldito Records)* [Martxoa] :: EP
· **LIE DETECTORS** *Pínchalo (Folc Records)* [Urria] :: Single LP
· **LOS BRAZOS** *Gas (Rock Estatal)* [Iraila]
· **MCENROE** *Rugen Las Flores (Subterfuge)* [Apirila]
· **NEKEZ** *Lokatzetako Igela (Maldito Digital)* [Azaroa]
· **NEMESIS OCCULTA** *Temple Of Desolation (La Humanidad es la Plaga)* [Urtarrila]
· **MOSH** *Impune (Maldito Digital)* [Apirila]
· **OIER IRURETAGOIENA** *Kulakantu (Nueni Records)* [Urria]
· **OSTOTS** *Hil Argia (Altare)* [Urria]
· **PANTY PANTERA** *Monos Que Se Rien (Discos Humeantes)* [Ekaina] :: EP
· **RAFA BERRIO** *Paradoja (Warner)* [Maiatza]
· **REINA REPUBLICANA** *El Despertar (Limbo Starr)* [Martxoa]
· **RISE TO FALL** *End vs Beginning (Coroner Records)* [Ekaina]
· **RURAL ZOMBIES** *Stones (Warner)* [Ekaina] :: EP
· **RURAL ZOMBIES** *Bat (Warner)* [Azaroa]
· **SENTIMEN BELTZA** *Pagopean (Altare)* [Martxoa]
· **SENTIMEN BELTZA** *Atatxa (Altare)* [Maiatza] :: EP
· **SEÑOR NO** *A Veces No (Folc Records)* [Abuztua] :: EP
· **THE DEALERS** *Serendipic Breakfast (Bickerton / Action Weekend)* [Urria] :: LP
· **THE GUILTY BRIGADE** *Polvora & Whisky (Potencial Hardcore)* [Martxoa]
· **THE RODEO IDIOT ENGINE** *Malaise (Throatruiner Records)* [Azaroa]
· **WILHELM** *How High Lily? (Origami)* [Urtarrila]

duen sormen unearen adierazle): **Virenque**, **Exnovios**, **Belize**, **Reina Republicana** eta **Monte del Oso**. Gure atentzioa eraman dute baita ere **Rural Zombies**, **Los Brazos**, **Arenna** eta **McEnroe** taldeen diskoek.

Ordea, talde euskaldunekin bukatu nahi dugu urteko errepaso arin eta azkar hau: **Piztiak**-en *U*, **Lou Topet** zarauztarren *Abesti bat gutxiago*, **Sorkun**en *Ziklomorphosia*, **Enkore**ren *E* disko sendoa, **Mikel Uraken** bakarlariaren *Neguaren ostean* eta **Estankona**ren *Ostargia* lan azpimarragarriak izan dira. **Iheskide**, **Sermond's**, **Eratu**, **UK Bill** eta **Larry Bird**-en diskoek ere, urte oparoa borobiltzen lagundu dute.

**Xabier Sagardia**

# ENTZUN!

## 2008/2013 KUTXA




- **5 LIBURU + 5 CD**
- **EUSKAL HERRIKO 85 TALDEREN 90 ABESTI**
- **720 ORRIALDE MUSIKAZ GAINEZKA**